

# KIKO ETA ESKUA



COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE



**KIKO ETA ESKUA**



Mutiko hau Kiko da.

Eta haren ondoan Kikoren laguna dago: eskua.

“Baina, zertarako balio du esku bakar batek lagun gisa?”,  
galdetu du Kikok.

“Laster jakingo duzu”, erantzun du eskuak.




“Kaixo eskua! Nire zangoek dantza egin nahi dute, baina ez dut musikarik”, dio Kikok.


“Ados Kiko”, dio eskuak.

“Zure musika izango naiz. Badut piano bat, eta nire hatzek badakite teklei kantarazten.”

PLIN, PLON, PLIN, egin du pianoak.



“Kaixo eskua! Zeozer goxoa jan nahiko nuke,  
baina ez dakit zer”, dio Kikok.



“Ados Kiko”, dio eskuak. Nahi al duzu sagar tarta bat?  
Edo nahiago duzu txokolategkoa, erregalitezkoa  
edo bananazkoa?”

“Sagar, txokolate, erregaliz eta bananazko tarta nahi dut!”,  
oihu egin du Kikok.

“ÑAM, ÑAM, ÑAM.”



“Kaixo eskua! Harrapaketan jolastu nahi dut, baina bakarrik ezin dut”, dio Kikok.

“Konforme Kiko. Zure jolaskidea izango naiz”, dio eskuak.

“Utziko didazu ilea ukitzen?”, galdetu du eskuak.

“Bai, jakina, ukitu lasai”, dio Kikok.



“Utziko didazu sudurra ukitzen?”, galdetu du eskuak.

“Bai, noski”, dio Kikok.

“Utziko didazu eskua ukitzen?”, galdetu du eskuak.

“Bai, noski”, dio Kikok.





“Eta, utziko didazu azpiko arroparen barruan ukitzen?”, galdetu du eskuak.

“EZ!”, oihu egin du Kikok.

“HORI EZTA PENTSATU ERE!”



“Oso ondo Kiko”, dio eskuak.

“Inork ezin zaitu azpiko arroparen barruan ukitu. Hori da “Kikoren Araua”.

Eta norbaitek egiten badu, kontu iezaiozu beste norbaiti. Ez gorde isilpean.”







Kalkulatzen denez, bost haurretik bat sexu-indarkeriaren biktima da, sexu-abusua barne.  
Liburu hau Europako Kontseiluak ekoitzi du, haurren aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko  
"BOSTETIK BAT" kanpainaren barruan.

Council of Europe campaign  
to stop sexual violence  
against children



bostetik bat

Europako Kontseiluaren kanpaina,  
haur eta nerabeen gaineko  
sexu-indarkeriaren aurkakoa

[www.coe.int/oneinfive](http://www.coe.int/oneinfive)

© 2013 Eskubide guztiak erreserbatuta – BAS

Concepto Grey Amsterdam

Konpainia ekoizlea: Not to scale

Ilustrazioak: Punga

Esker ona Rikky Schrever eta Manon Sikkeli-i



Ipuin honetan “Kikoren Araua” erakusten da. Gidaliburu xumea da, haurrei ukipen fisiko desegokia saihesten lagundu nahi dieten guraso eta hezitzaileentzat sortutakoa, egoera bat deseroso bazaie nola erreakzionatu eta laguntza eskatzeko norengana jo jakin dezaten.

Gurasoek ozenki irakurri diezaiekete seme-alabei, baina eskolan ere erabil daiteke, edo hurrek parte hartzen duten beste edozein lekutan. Argitalpen hau eta haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioari buruzko beste material batzuk deskargatu nahi izanez gero, bisitatu Europako Kontseiluaren web-orria ([www.laregladekiko.org](http://www.laregladekiko.org)) edo FAPMI Haurrekiko Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkarten Federazioarena ([www.fapmi.es](http://www.fapmi.es)).



ERAKUTSI “KIKOREN ARAUA” ZURE UMEARI  
[www.laregladekiko.org](http://www.laregladekiko.org)